



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

ALDUNDIAK TALKA PLAN BAT JARRI DAU MARTXAN, ENPLEOAREN JATSIERIA MURRIZTEKO NEURRI BARRIAKAZ

- **Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Foru Diputatuak, Enpleoa Defendituteko 2020-2021 Plana aurkeztu dau Bizkaiko Batzar Nagusietan, Bizkaiko enplegarritasuna defindituteko eta lan eta ekonomia sarea bultzatzeko eta barriro indartzeko programa barriakaz.**

(Bilbon, 2020ko ekainaren 3an). Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Foru Diputatu Bizkaiko Batzar Nagusien aurrera etorri da, berak eskatuta, pandemia indarrean egon dan hilebete honeetan bere Sailak, Bizkaiko langabezia murrizteko diseinatu dauen Enpleoa Defendituteko 2020-2021 Plana aurkezteko. Planak bederatzita programa garatuko ditu hiru ildo estrategikotan: enpleoa defendidutea eta kontserbetea; enpleoa bultzatzea eta barriro indartzea, eta datuen azterketan eta bilketan zentratutako hirugarren ildo. Neurriak, erakundeen beste ekintza batzuen “osagarriak dira, eta “5 milioi euro baino gehiago” inbertidutea aurreikusten da.

“Langabeziaren jatsieria murrizteko” eta “egoera zaugarriagoan dagozan personentzako babes aktibetako” “kontingentzia” planak, Sailak daborduko oso aurreratuta eukan Enpleorako 2020-23 Esparru Plana “barriro planteetea” eskatzen dau, eta Bizkaian enpleoaren alde ari diran erakundeakaz eta eragileakaz aurretiazko diagnostikoa egin eta gero egin da. “Atoan” jarriko da martxan, prestau dan dekretua laster egingo dan Gobernu kontsejuan onetsi eta gero. Laespadak adierazo dauenez, “irailetik edo urritik” aurrera dekretuaren eukia proposamen barriakaz aldatu ahal izango da, plana “dinamikoa eta aldaketen aurrean edegia” dalako; dagozan beharrianak kontuan izanda “diru gehiago injektetako” aukerea be aztertu ahal izango da.

“Enpleoa defendidutea eta kontserbetea” lehenengo ildo estrategikoari jagokonez, planak, pandemia aurretik egoan enpleoari laguntzera zuzendutako MANTEN programea aurreikusten dau. Programa horrek “2 milioi euro” aktibauko ditu, “600 eta 800 persona artean” kontratatetako aukerea emoteko. Horrez gain, Demaren eskutik etorriko dan REEMPRESA programari jagokonez, 2021eko urtarriletik aurrera “negozioen transmisinoa errazten” lagunduko dau.

“Enpleoa bultzatzeari eta barriro indartzeari” jagokon bigarren ildoan, Aldundiko Enplegu Sailak beste lau programa sartuko ditu. “Milioi bat euroko” aurrekontua



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

daukan KONTRATA izeneko lehenengoak, krisian euren lanpostua galdu daben “300 eta 400 persona artean” kontratetea bultzatuko dau. Programa horri, enpleoa bilatzen ari diran eta 1.000 persona baino gehiagori laguntzeko Udalakaz eta “behargintzakaz” batera, aurrera eroango dan 3R programa gehituko jako. Programa horrek “2 milioi euro” izango ditu. Ildo horri, “755.000 euro” izango dituan lanbakoei laguntzeko Prestakuntzarako eta Enpleorako programa Mistoa gehituko jako, eta baita Aktibazinarako programa Digital bat be. Azken horren bitartez, “90 personek” sei enpleo anezka birtualen onurak jasoko ditue, online kanala sortuta.

Horrez gain, planak izaera analitikoa eta estadistikoa daukien beste hiru ekintza aurreikusten ditu, plataforma digital bat sortzea, Aldundiaren eta beste administrazio guztien programa guztiak jasoko dituan enpleorako atari bat, eta datuak biltzeko eta programen azterketea eta ebaluazinoa egiteko aukerea emongo dauen sistema, hain zuzen be.

Oposizionoko taldeak bat etorri dira Laespadagaz, Covid-19aren eraginak ekarri dauen osasun, ekonomia eta gizarte arloko krisiaren aurrean aparteko neurriak jarri behar dirala indarrean esatean. Dana dala, Amaya Fernándezek (PP) zalantzan jarri dau programa horreetako batzuk benetan barriak diranik. “Horreetako batzuk daborduko funtzionetan dagoz”. Elkarrekin Bizkaiatik, Israel Escalante batzordekideak eskualdeen artean “orekea” egotea eskatu dau, eskualde batzuk langabeziaren zigorra beste batzuk baino gehiago ari diralako jasaten. EH Bilduk Izaskun Duqueren eskutik, Batzarretako beste talde batzuek euren soluzinoak aurkezteko “espazio zabalagoak” edegiteko eskatu dau. Eta EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen aldetik, Irene Edesak eta Juan Oterminek, koronabirusak “oso erronka handia” planteetan dauela esan dabe, eta “Bizkaia Aurrera” ekimenaren barruan dagon plana “beharrezkoa” eta beste administrazio publikoen ekimenen “osagarria” dala azpimarratu dabe.

AKORDIOA SOSAGAZ

Beste alde batetik, Elkarrekin Bizkaia taldeko Israel Escalantek, Aldundiak Israelgo SOSA erakundeagaz sinatu dauen hitzarmena “bertan behera iztea” eskatu dau. “Deigarria da” Foru Gobernuaren “inkoherentzia politikoa”, izan be, erakunde hori, Israelgo Gobernuagaz proiektu teknologikoak eta armen ganekoak dituen enpresek “eusten dabe”, HPk eta RAFAELek, besteak beste. Bere berbetan, akordio hori, Gernikan, Osoko bilkura batean, 2016ko abenduaren 26an, onetsi zan arauz besteko proposamen baten “kontra dago”. Proposamen horretan, Israelek egiten eban “Giza Eskubideen eta nazinoarteko legediaren edozein zapalketa” deitoratzen zan, eta Palestinako Estaduari jagokonez Nazino Batuen Erakundeak emondako ebazpenakaz bat egiten zan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ekonomiaren Garapenerako Sailak sinatutako hitzarmena dan arren, Teresa Laespadak azaldu dauenez, akordio horren helburua “startupak” azkartzeko eredu barriak “aztertzea” da, izan be, SOSA, gizarte arloko barrikuntzan mundu osoan dagon plataforma nagusietakoa da, “15.000 startup” baino gehiago ditu, eta bere eredu baliagarria izan leiteke “Bizkaian enpleoa sortzeko”. Ukatu egin dau hartu-emon horrek ezelango erlazinorik daukanik Israelgo Gobernuak giza eskubideak zapaltzeagaz. Hori holan balitz, “Sirian edo Txinan dagozan enpresa guztiakaz hartu-emonak apurtu beharko geunkez”, euren gobernuek ez dituelako giza eskubideak errespetetan.

ETORKINAK

Beste alde batetik, batzordeak ez dau onartu EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia taldeek, talde abertzaleak aurkeztu dauen arauz besteko proposamenaren aurrean, etorkinen administrazio egoera irregularra bideratzeko aurkeztu daben zuzenketa eske transakzionala. Ekimenean, beste gauza batzuen artean, persona horreei egoitza baimena emotea eskatzen jakon Gobernu Zentralari, baina ez da onartu, EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeen kontrako botoakaz. Foru Gobernua eusten daben taldeek zuzenketa eskea aurkeztu dabe, baina proposamena aurkeztu dauen taldeak ez dau onartu. Zuzenketa eske horretan, Bizkaiko Batzar Nagusiek “ez ohiko abaguneak dirala eta, egoitza eta lan baimena jasotzeko arauzko eskakizunak malgutzeko” eskatzen eutsen Espainiako Gobernuari, “gaur egun etorkinek modu erregularrean egoteko eta laneratzeko daukiezan aukerak handitzeko”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN LANZA UN PLAN DE CHOQUE CON NUEVAS MEDIDAS PARA FRENAR LA CAÍDA DEL EMPLEO

- **La Diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, presenta en las Juntas Generales de Bizkaia el Plan de Defensa del Empleo 2020-2021 con nuevos programas en defensa de la empleabilidad de Bizkaia y en el impulso y regeneración del tejido laboral y económico.**

(Bilbao, a 3 de junio de 2020). La diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha comparecido en las Juntas Generales de Bizkaia, a petición propia, para presentar el Plan de Defensa del Empleo 2020-2021, diseñado durante estos meses de pandemia por su departamento para poner freno al desempleo en Bizkaia. El plan incluye el desarrollo de nueve programas diferentes en tres líneas estratégicas: defensa y mantenimiento del empleo; impulso y regeneración del mismo; y una tercera línea centrada en el análisis y la recopilación de datos. Las medidas son “complementarias” a otras acciones institucionales y contempla invertir “más de 5 millones de euros”.

El plan de “contingencia” para “frenar la caída del desempleo” y “activar un escudo de protección para las personas más vulnerables”, que supone un “replanteamiento” del Plan de Empleo marco 2020-23 que ya tenía muy avanzado el Departamento, ha sido elaborado tras realizar un diagnóstico previo con la participación de entidades y agentes en la defensa del empleo en Bizkaia. Echará a rodar “ya”, una vez que el decreto elaborado se apruebe en un próximo consejo de Gobierno. Laespada ha señalado que cabe la posibilidad de modificar su contenido “a partir de septiembre u octubre” con nuevas propuestas, ya que el plan es “dinámico y abierto” a cambios; incluso a la posibilidad de “inyectar más dinero” en función de las necesidades.

Con respecto a su primera línea estratégica, “la defensa y mantenimiento del empleo”, el plan contempla el nacimiento del programa MANTEN, dirigido a apoyar el empleo existente antes de la pandemia, mediante el que se activarán “2 millones de euros” para permitir la contratación de “entre 600 y 800 personas”. Asimismo el programa REEMPRESA, de la mano de Dema, ayudará, a partir de enero de 2021, a “facilitar la transmisión de negocios”.

En una segunda línea referida al “impulso y la regeneración del mercado”, el departamento foral de Empleo incluirá otros cuatro programas. El primero, denominado KONTRATA, dotado con “1 millón de euros”, apoyará la



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

contratación de “entre 300 y 400 personas” que han sido despedidas durante esta crisis. A éste se le unirá el programa 3R que ha sido desarrollado junto con los ayuntamientos y “behargintzas” para crear una pasarela de empleo que beneficie a más de 1.000 personas en la búsqueda de empleo y que está dotado con “2 millones de euros”. A esta línea se le unen también un programa Mixto de Formación y Empleo, que dotado con “755.000 euros” servirá para acompañar a desempleados, y el programa Digital de Activación, a través del cual “90 personas” se beneficiarán de seis lanzaderas de empleo virtuales.

Asimismo, el plan contempla otras tres acciones de carácter analítico y estadístico como la creación de una plataforma digital, un portal de empleo con la incorporación de todos los programas forales y de otras administraciones, y un sistema que permita la recopilación de datos, el análisis y la evaluación de los programas.

Los grupos de la oposición han coincidido con Laespada en que se necesitan poner medidas excepcionales ante esta crisis sanitaria, económica y social que representa el impacto del Covid-19. De todas formas, Amaya Fernández (PP) ha dudado de que algunos programas sean en realidad novedades. “Algunos ya están en funcionamiento”. Desde Elkarrekin Bizkaia, su apoderado Israel Escalante ha pedido que exista “equilibrio” a nivel comarcal, ya que algunas comarcas están siendo “más castigadas” que otras por el paro. EH Bildu, en palabras de Izaskun Duque, ha solicitado que “se abran mayores espacios” para que los grupos junteros puedan aportar soluciones. Y desde las filas de PNV y PSE-EE, Irene Edesa, y Juan Otermin, han advertido del “reto enorme” que plantea el coronavirus y han señalado que el plan, enmarcado en “Bizkaia Aurrera” es “necesario” y “complementario” a iniciativas de otras administraciones públicas.

ACUERDO CON SOSA

Por otro lado, Israel Escalante de Elkarrekin Bizkaia, ha pedido la “anulación” del convenio suscrito por la Diputación con la organización israelí SOSA. “Llama la atención la incoherencia política” del Gobierno foral ya que esta organización está “sustentada” por empresas que tienen proyectos tecnológicos y armamentísticos con el Gobierno de Israel como HP y RAFAEL. Dicho acuerdo “choca”, según él, con una proposición no de norma aprobada el 26 de diciembre de 2016 en un pleno en Gernika en la que se condenaba “cualquier vulneración de los Derechos Humanos y de la legalidad internacional” por Israel y se mostraba la adhesión a las resoluciones emanadas por Naciones Unidas en relación al Estado de Palestina.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Pese a que es un convenio firmado por el departamento foral de Desarrollo Económico, Teresa Laespada ha explicado que dicho acuerdo pretende “explorar” nuevos modelos para acelerar “startups”, ya que SOSA es una de las principales plataformas de innovación social que existen en el mundo “con más de 15.000 startups” y su modelo puede servir para “crear empleo en Bizkaia”. Ha negado que esta relación guarde relación con la vulneración de los derechos humanos del Gobierno israelí. Por esa razón, “tendríamos que romper relaciones con empresas que residan en Siria o China” solo por el hecho de que sus gobiernos no respetan los derechos humanos.

PERSONAS INMIGRANTES

Por otro lado, la comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad ha rechazado una enmienda transaccional de EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia con medidas para facilitar la situación administrativa irregular de las personas migrantes. La iniciativa, en la que entre otras cosas se pedía al Gobierno central conceder el permiso de residencia a estas personas, ha sido rechazada por PNV, PSE-EE y PP. Los grupos junteros que sustentan al Gobierno foral habían presentado una enmienda a una proposición no de norma de EH Bildu, que no ha sido aceptada, para que las Juntas Generales de Bizkaia instaran al Gobierno de España a que “flexibilizase los requisitos normativos de acceso a la autorización de residencia y trabajo por circunstancias excepcionales”, con el fin de posibilitar que “aumentasen las actuales posibilidades de estancia regular y de integración laboral de las personas inmigrantes”.